

# Odoletikako bertsoa

Alex Gurrutxaga

Urte anitz darama Mixel Itzainak bertsoetik gertu, eta halaxe idatzi du *Xalbador* saiakera ere, gertutik: auzo eta adiskide zuen Itzainak urepeldarra, eta gaztetarik hari izandako mira azalarazi du. Informazio asko eta mota askotakoa bildu du: bibliografia eta lekukotza uztartu ditu, saiakera interesgarri eta fina osatuz.

Xalbadorren soslaia egiterakoa eta bertsoak jendartean zuen presentzia deskribatzerakoan, pasadizoez baliatu da, batez ere, Itzaina. Gainera, Xalbadorren ahaide eta gertuko testigantzak bildu ditu, bai eta bertsolarienak ere; sartu ditu elkarrizketak, irizkiak, hitzaldi zatiak, e.a. Horiak guztiek zutarri sendoa ematen diote saiakerari.

Tarteka herren geratzen dena testuen azterketa da. Itzainak Xalbadorren bertso asko inter-

pretatzen ditu: batzuk *Odolaren mintzoa*-n daudenak, eta beste batzuk jaialdietarik jasoak. Komentarioak zuzenak izanik ere, hala baitira oro har, zenbaitetan laburxko aritu dela esango nuke, azkarregi, bertsoen ezaugarrien zerrenda hutsean geratuz ia. Horrek alde du irakurleaz ez akitzea, baina azalpenetan lasaia aritzeak saiakera gehixeago jantziko lukeelakoan nago. Azterketei dagokionez bi atal nabarmendu behar dira. Batetik, Xalbadorren



'Xalbador'


Egilea: Mixel Itzaina. Argitaletxea: Elkar.

bertsoak Mendiage, Elizanburu, Oxobi eta Zaldubiren bertsoekin konparatzen dituen kapitulua dago. Bestetik, aipamena merezi du *Amentsetan* bertso sortaren azterketa patxadatsuak; matizazioak alde batera, aski zuzenak dira Itzainaren oharrak.

Saiakerak biltzen dituen materialen artean balio berezia dute Xalbadorren eskuizkribuek. Bertsoen aurreko bertso zenbait ematen ditu Itzainak, horietako asko *Gosta gabe deusik* ez atalean, eta hortik aurrera han-hemenka beste zenbait. Kasu honean ere, azalpen pausatuegoek gehiago nabarmenduko lukete bertso hauen balioa, baina ez da dudarik interesgarria dela.

Hizkera freskoa da Itzainarena, estandarretik pitiñ bat urruntzen da, eta ahozkotasunaren indarra du. Tonua dela-eta, testuak tarteka daukan apologia kutsuak edukiari kontra egin diezaiokete esklamazio esaldiak, harridura ikurrak eta gisakoak askotxo dira; izan ere, miresmenetik idatzi du, baina batzuetan irakurleak behar du idazleak zorrotzasun eta distantzia gehiago jar dezan landutako gaiarekiko.

Bertsolaria bere osoan dakarkigu saiogileak. Bertsolaria izan da Euskal Herriaren sentipenei arnasa eman diena: garaian garaiakoa kantatu du, herriaren gertakizunak, pertsonen tragediak eta pozak, eta eman die horiei guztiei dimensio soziala. Xalbadorren kasuan iduri luke bere lirismoa dela bereziki liluratzen gaituena; horregatik esan ohi da, ziurrenik, bertsolarietan poeta zela Xalbador. Takarra bide zen maiz, petrala ere bai tarteka, baina antzaldatu egiten zuen bertsoak. Bere kasa ere halaxe aritzen omen zen, bertsoa izaki bere sentieraren kanalizatze estetikoak. «Hezurretaraino bertsolaria zen», dio Itzainak. Piarre Bidondok, Itzainak galdetzen diolarik, halatsu esaten du: «Xalbadorrek bertsoa bere baitan zuen». Amets Arzallus ere horretan dago: «Bere bertsoa berri zeron odola zen. Odola lehen pertsonan mintzo da beti». Barnean irundako bertsoa herriari ematerakoan antzaldatzen zen, eta oraindik ere hunkituko da bat baino gehiago haren bertsoekin. Hahor Itzainaren *Xalbador*, oroitzena eta literatura eskuz esku, aho betegarri.



## 'Korapiloak Iokarrietan' / 'Haize takikardikoa'

Egileak: Garazi Ugalde Pikabea / Gorka Salces Alcalde. Argitaletxea: Bermingham.

Pasasía Hiria-Xabier Portugal euskarazko poesia sariketako lehen sariaren irabazlea da Garazi Ugalderekin *Korapiloak Iokarrietan*, eta bigarren sariarena Gorka Salcesen *Haize takikardikoa*. Patxi Ezkiagak eta Irati Goikoetxeak osatu dute epaimahaia.



## 'Zutabeak'

Egilea: Arturo F. Rodríguez. Itzultzailea: Iñaki Lopez de Luzuriaga. Argitaratzaileak: Ensoñaciones Tobogan eta Consonni.

Arturo F. Rodríguezek *Gara* egunkariko *Mugalar* gehigarrian argitaratutako zutabean hautaketa bat jasotzen du liburua, gaztelaniaz eta euskaraz, hainbat artistaren kolaborazio grafikoekin: Txaro Arrazola, De-tritus, Mauro Entrialgo...



## 'Lan eta lan, emakumea Bergaran'

Egileak: Juan Martín Elexpuru eta Idoia Etxeberria. Argitaratzaileak: Badihardugu eta Bergarako Udala.

Lanbide askotako emakume langileen lekukotasunak ditu oinarri nagusi Juan Martín Elexpuru eta Idoia Etxeberria Badihardugu euskara elkarteak idatzitako Bergarako Udalak eskatuta egiten duten azterlanak.

# Ipuinetan dena da posible

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Kritika txoko honetan, idazlea edota testu ingurua ez arakatzeko ohitura ezarri nion neure buruari. Ahal den neurrian, liburua isolaturik erakutsi nahi izaten dut, bere esentzian zeren eta zertarako gai den erakusteko. Gaur –beste noizbait bezala–, ez dut araua beteko. Ezin dut.

Eta ez da ilustratzailearen lanagatik. Zeren album honetako irudi lana bere horretan deskribatu eta ederresteko modukoa da –eta: arkatza eta brotxa ederkari astinduta, koloreak gain hartutako orrialdeak ditu; paisaia eta animalia gizatiartuak erakusten ditu, elkarren gainean ezartzen diren planoetan, ia txotxongiloetako dekoratua balitz bezala... Eta istorioa ulertzen laguntzen diote balizko irakurleari, irakurritakoa era jostarian ikusten, baina tes-

tuari informazioa erantsi gabe, eta, erakargarria izanik ere, nekegarria gertatzen da.

Baina idazlearen lana ezin honela aztertuko. Literatura lana ia ez-deusa delako, haurrentzat idaztean sinpletasuna sinplekeria bihurtzeko arriskua dagoela gogora ekartzearaino. Eta horregatik esan behar da Isern psikologoa dela, eta album hau literatura lan-tresna gisara darabilen psikologo baten obra dela. Halako zantzuak erakutsi zituen *Pilu-Pilu* albumean eta *Hartza eta tximeleta-sarea* lanean. Eta orain hau.



## 'Non zaude, barraskilo?'

Idazlea: Susanna Isern. Ilustratzailea: Leire Salaberria. Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea. Argitaletxea: Txalaparta.

# Thriller-kumeak

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bere 76 orrialdeekin, narrazio luzea da, baina elkarrizketa asko eta zortzi atal izateak irakurketa arina ziurtatzen dute.

Kontraesana badirudi ere, pertsonaia asko agertzen dira; zori-neko Sugaar barnean hartuta, bada, dira hamalau. Baina ez dago nahasmen duaren sentipenik, ez horixe. Idazketak, kontaktaren hariak eta pertsonaien funtzioak hain zorrotz banatuta daude, ezinezkoa dela nahastea. Suspensea da kontaktaren motorra. Oinarrian 15 urteko araba kezkatu bat dugu, gaixotu berri den 10 urteko anaia osabidea bilatzeko piskizan. Zergatik ez dakiela, anaiaaren txartzea ospe txarreko urmael batekin lotzen da; esamesek diotenez, Sugaar izaki mitologikoaren agerleku den Lindozulo putzua da.

Gurasoek mutikoa medikutan

darabilten bitartean, arrebak, anaiaaren lagun bati esker, mutikoak aspaldion itzal-iluneko auzoko bat zelatzen ibili direla jakingo du. Hari horri tiraka osatzen da korapiloa.

Unerik larrienean ere ez da tentsio asko pilatzen, berehala askatzen delako, eta igo ere, asko igo ez delako. Agian, horixe du punturik ahulena kontakizunak.

Kapitulu bakoitzean ilustrazio bat-bi daude, komiki erako marrazketarekin, eta, baturik, kontaktaren korapiloen bilduma eraginkorra osatzen dute.

Generoa maite duen edonorentzat gomendagarria.



## 'Sugaar'

Egilea: Ramon Olasagasti. Ilustratzailea: Bruno Hidalgo. Argitaletxea: Elkar.